

Europako sindikatuen deia – EB-Israel Asoziazio Ituna bertan-behera utzi!

Guk, behean sinatzen dugun Europako sindikatuok, Europako Batzordeari Israelgo Gobernuak EB-Israel Asoziazio Itunaren bigarren artikulua betetzen duen berraztertu dezala eskatzen diogu. Batzordeari «Tratatuaren Zaindari» gisa duen erantzukizuna bete dezala eskatzen diogu, Nazioarteko Justizia Gortearen iritzi aholku-emaileari, Irlandako eta Espainiako gobernuen 2024ko otsaileko eskaerak onartuz eta Kontseiluari neurri egokiak gomendatuz, Israelgo gobernuak azken 13 hilabeteetan egin dituen nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriei aurre egiteko.

2023ko urritik 42.000 palestinar baino gehiago erail dituzte Gazan, eta gutxienez 10.000 gehiago desagertuta edo hondakinen azpian daude, NBEren datuen arabera. Ia biztanlego guztiak behartutako lekualdatzea jasan du, kasu askotan hainbat aldiz, eta asko bizi-baldintzen narriadurak eragindako gaixotasun infekziosoen ondorioz hil egin dira. Zerbitzu publikoak, hala nola osasuna, ura eta saneamendua, murriztu egin dira, eta eskola eta unibertsitateen % 80 baino gehiago suntsituta edo kaltetuta geratu dira. Ehunka pertsona gehiago Gaza iparraldeko azken erasoen gogortzearen ondorioz hil dira, zeinak besteak-beste palestinarren bortxazko desplazamendua nahiz laguntza humanitaria ukatzea suposatuta duen, eta beste ehunka mila arrisku egoeran daude. Gainera, Ekialde Hurbilean Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Herri Lan eta Sorospen Erakundearen (OOPS) funtzionamendua debekatzen ari da Israel, herrialdeko palestinarrentzako laguntza humanitarioaren hornitzaile handiena dena.

NBEko Ikerketa Batzordeak ondorioztatu zuen Israelek gerra krimenak eta gizateriaren aurkako sarraskiak nahita egin dituela Gazako langileen eta instalazio medikoen aurkako eraso gupidagabeetan. Bere aholku-emailearen iritzi, Nazioarteko Justizia Gorteak estatuei eta nazioarteko erakundeei dagozkien ondorio juridikoak azpimarratu zituen, baita aitortza ezaren, laguntzarik ezaren eta lankidetzaren betebeharra ere, aipaturiko urraketek amaiara emateko bitarteko zilegien bidez.

Epe honetan, Israelgo Gobernuak 2002tik izandako indarkeriaren areagotze handienari ekin dio Zisjordanian, indarkeria honen ondorioz, 700 palestinar baino gehiago erailak eta 10.900 pertsona atxilotuak izan direlarik. Palestinako 1.800 etxe inguru eta beste egitura batzuk eraitsiak izan dira, eta kolonoen erasoak nabarmen areagotu dira, LANEren txostenean adierazten den bezala. Era berean, Israelek bere esaoak Libanora zabaldu ditu, 1.000 pertsona baino gehiago hil eta milioi bat pertsona baino gehiago bortxaz leku-aldatuz.

Sindikatuetakoa kideak Israelgo Estatuaren ekintza gero eta bortitzagoengatik bereziki kaltetuak izan dira, tartean, medikuen, kooperanteen eta kazetarien aurkako eraso barne. 1.000 osasun-langile baino gehiago eta 318 kooperante erail dituzte Gazan, tartean NBEko 235 kide. Zazpi hilabetetan 200 langile humanitario hil dira, eta kopuru horrek azken bi hamarkadetako edozein urtetan mundu osoan hildakoen kopurua gainditzen du. Eraildako 130tik gorako komunikabidetako langile nahiz kazetarien artean, 31 kasu sinesgarri daude, zeinetan nahikoa informazio dagoen kazetariak bere lanbidea egiteagatik soilik, zuzenean erasotuak izan zirela baieztatzeko.

Azken 12 hilabeteetan, NBEko Segurtasun Kontseiluak Gazari buruzko lau ebazpen onartu ditu, horietako bat su-etena eskatuz, eta Nazioarteko Justizia Gorteak hiru epai lotesle eman ditu, Israelgo agintariak

Gazako operazio militarretan genozidio arriskua saihesteko hartu behar dituzten premiazko neurriak zerrendatzeko. Nazioarteko Justizia Auzitegiak ere kontsulta-irizpen bat eman zuen, Israelek lurralde palestinarra okupatzea nahiz anexionatzea legez kanpoko delatza eta Israel palestinarren aurkako arraza nahiz apartheid segregazioaren erantzulea dela adieraziz, eta Israelgo agintariak nazioarteko zuzenbidearen abusuaren eta urraketen zerrenda luzea azalduz. NJA-ren epaiek, Israelgo agintariak egindako krimen larrien inguruan, NBEko idazkari nagusiak, NBEko Ikerketa Batzorde batek, NBEko adituek eta gobernu kanpoko talde ugari aurkeztutako oso larrien frogekin bat egiten dute. Israelgo agintariak neurri handi batean epai hauek desobeditu egin dituzte, eta gosea gerra-arma gisa erabiltzen jarraitzen dute, Gaza osoan hain beharrezkoa den laguntza humanitarioaren sarrerari eta banaketari murrizketa arbitrarioak eta kostu bidegabeak ezarriz.

EBko mandatariek ere, deportazio masiboak gelditzeko nazioarteko presioa eskatu zuten, eta kontuak emateko beharra azpimarratu zuten. Europako zenbait diplomatikok, horien artean Kanpo Arazoetarako EBko Goi Ordezkariek, Palestinako egungo gertakariengatik kezkatuta daudela adierazi dute berriki. Horri inguruan jardun dezaten eskatzen diogu Batzordeari.

Deseskalatzea eskatzen duten adierazpenetatik haratago, EBk eta nazioarteko komunitateak ez dute ia ezer egin Israelgo gobernuak nazioarteko zuzenbidearen eta palestinarren eskubideen urraketak zalantzan jartzeko. EBk, Israelen bazkide komertzial nagusia den aldetik, hitzetatik ekintzetara igaro behar du eta krimen horiengatik kontuak ematea bermatu behar du.

Giza eskubideen errespetua EB-ak bazkide diren herrialdeekin, tartean Israel, dituen Asoziazio Itunaren «funtsezko elementua» da. Europako Batzordeak, Tratatuaren zaindari gisa, EB-Israel Asoziazio Ituna giza eskubideak eta printzipio demokratikoak errespetatuz gauzatzen dela bermatzeko erantzukizuna du. Europako Batzordeak eremu honetan duen garrantzitasuna, Nazioarteko Justizia Auzitegiko Aholkulariek Nazioarteko Zuzenbidearen inguruan definitutako betebeharrak juridiko loteslearen kontrakoak da.

Beraz, Europako Batzordeak bere eginbeharra bete dezala exijitzen dugu, EB-Israel Asoziazio Ituna berrikusiz eta Kontseiluari ituna bertan behera uzteko gomendioa eginez, Israelek 2. artikuluan egindako urraketak kontuan hartuta, Nazioarteko Justizia Auzitegiak nahiz Nazio Batuetako beste organo batzuek berretsi egin duten bezala. Gainera, Europako herrialdeei, Israelek arau lotesleak urratu dituen neurrian, legez kanpoko egoera mantentzen ez babesteko betebeharrak bete dezatela eskatzen diegu, baita israeldarren asentamenduekiko merkataritza harreman orori amaiera eman eta material militarren hornidura eten dezaten ere; hala nola, armak beren lurraldeetan zehar transferituak izan ez izatea ere.

Sinatzaileak:

Europe:

Palestina Justiziaren Aldeko Europako Sindikatuen Sarea,

Belgium

ABVV-FGTB (*Trade union confederation*),

La Centrale Générale-FGTB,

ACV-CSC,

FGTB Wallonne,

MWB-FGTB,

FGTB-Jeunes

France

CGT (*Trade union confederation*),

FILPAC-CGT,

Fédération Syndicale Unitaire (FSU),

La Fédération Nationale des Mines et de l'énergie - FNME-CGT,

The Fédération CGT des Services publics,

Fédération Nationale des Salariés de la Construction du Bois et de l'Ameublement CGT,

Union syndicale Solidaires,

Ireland

Irish Congress of Trade Unions,

Fórsa,

Services Industrial Professional Technical Union - SIPTU,

Irish National Teachers Organisation - INTO,

The Irish Nurses and Midwives Organisation - INMO,

Craigavon Trades Council,

Dundee Trades Union Council,

Italy:

FIOM-CGIL,

Netherlands

MENA Working Group FNV,

Palestinian Workers' Association Netherlands,

Norway

The Norwegian Union of Municipal and General Employees - Fagforbundet,

Norwegian Trade Union of Commerce and Office employees,

Spain

Sindicato de Trabajadoras y Trabajadores de la Administración de Castilla y León - STACYL ,

Colectivo Unitario de Trabajadores,

Confederación Intersindical,

Sindicato Andaluz de Trabajadores - SAT,

Unión de Sindicatos de Trabajadoras y Trabajadores En Andalucía - USTEA,

LAB (Basque Country),

ELA (Basque Country),

CIG (Galicia),